



**GIZARTE ZERBITZUETAKO PRESTAZIO UNITATEKO ERDI MAILAKO BI
TEKNIKARI LANPOSTU
2020/11/12**

JARRAIBIDE ORRIA

*Arreta handiz irakurri jarraibide hauek. Oso garrantzizkoak dira saioa nola egin jakiteko. Ariketa egiteko moduz **zalantza** edo **zailtasunik** baduzu, ez dudarik izan eta **galdetu zaintzaileei ariketa hasi baino lehenago**.*

EZ IDATZI EZER, HARIK ETA AGINDUA EMAN ARTE.

- Erantzun orri mekanizatu bat izan behar duzu. Falta bazaizu, eskatu zure inguruko zaintzaileari.
- Ariketak egiteko denbora osoan zehar, mahai gainean utzi behar duzu zure NAN (nortasun agiria), ondo ikusteko lekuan. **Sakelako telefonorik ekarri baduzu, deskonektatu egin behar duzu.** Ariketak egiteko denbora osoan zehar, mahai gainean, ariketak egiteko eman zaizun materiala, azterketan zehar banatuko dena eta nortasun agiria besterik ezin duzu eduki.
- Ariketak egiteko denbora osoan zehar, erabatekoa izan behar du isiltasunak. Norbaitek ezegoki jokutzen badu, edo gainerako hautagaiei kalte edo enbarazu egiten badie, azterketa-lekutik kanpora bidaliko da.



1. Ikusten duzunez, erantzunen orria bikoitza da: bata zuria da, eta bestea horia. **Ez banatu orriok ariketak amaitu arte.** Izan ere, ariketak amaitu ondoren, orri zuria bakarrik entregatu beharko duzu, eta orri horia zeuretzat gorde.
2. Beraz, oso garrantzitsua da laukitxoak **ondo markatzea**, orrian bertan esaten den erara; hau da, **laukitxo osoa bete** eta ilundu behar da. Ez egin, bada, ez ixarik (x), ez biribilik. Arau hau betetzen ez baduzu, litekeena da baliorik gabe geratzea zure ariketa. Ezin da tipexik erabili, eta arkatzik ere ez.
3. Epaimahaiburuak agintzen duenean, bete itzazu erantzunen orriko buruan eskatutako datuak: **izena, abizenak eta NAN zenbakia.**
4. Azterketaren iraupena **ordubetekoa** izango da.
5. Ariketak **50 galdera ditu. Azken 8 galderak ordezkioak dira,** eta bakar-bakarrik hartuko dira kontuan **aurreko 42etakoren bat baliogabetzen bada.** Hala ere, **zuk 50 galderak erantzuten saiatu behar duzu.** 0 eta 21 punturen artean puntuatuko da, eta ariketa hau gainditzeko gutxienez 10,5 puntu eskuratu behar dira.



6. Galdera bakoitzak lau erantzun ditu aukeran: A, B, C eta D. Galdera bakoitzak erantzun zuzen bakarra dauka. Galdera eta dagozkion lau erantzunak irakurri ondoren, erantzunen orrian jarri behar duzu zein den erantzun zuzena.
7. Gaizki erantzundako galderek zigorra daukate. Epaimahaiaren erabakiaren arabera, ariketa honetako puntuak ondorengo formularen arabera lortuko dira: **Zuzeneko puntuazioa berdin erantzun zuzenen kopurua ken errore kopuruaren herena izango da ($P = Z - E/3$)**. Erantzun gabe utzitako galderetan, erantzun bat baino gehiago dutenetan edo balio gabeko zirriborroak dituzten galderetan, zero puntu eskuratuko da.
8. **Adierazitako ordua baino lehenago amaitzen baduzu** ariketa, atera ezazu erantzunen orriko orri horia, zeuretzat da-eta; gero eskua jaso, eta emaiozu orri zuria zaintzaileari. Ondoren, aretotik irten ahal izango zara.
9. **Azken 15 minutuetan** gelatik irtetean sor daitezkeen zarata-arazoak direla-eta, malgutasunez jokatu da: enbarazu arazorik ikusten ez bada irteten utziko zaizue amaitu ahala; bestela, ez.
10. Bertaratze ziurtagiria eskatu baduzu, azterketa bukatzen duzunean eskatu zaintzaileari.
11. **Behin-behineko emaitzak** Eibarko Udalaren iragarki taulan eta www.eibar.eus web gunean argitaratuko dira.

ESKERRIK ASKO ZURE LAGUNTZARENGATIK